



EUSKAL GAZTE LANKIDEEN
BIZI-IBILBIDEAK

**LANKIDETZA ETA
GARAPENA:
KONTZEPTUAK
INDARBERRITZEKO
GILTZARRIAK**





HITZAURREA

“Harridurak pentsamendua eragiten du” (Platon)

Gizakiaren buru emankorrek “harriduragailua” asmatu izan balu, hots belaunaldi batetik bestera harritzeko gaitasuna neurtuko lukeen tresna moduko bat, Aro Garaikidearen berrogei nagusien zerrendan, besteak beste, telefonoa, hegazkina, ordenagailua eta nabigazio-espaziala sartuko liratekeela ziur gaude; baina horietako batek berak ere ez lioke lehentasuna ukatuko, orain bi mende (1804) Vivian eta Trevithick-ek ausarki bururatu zuten asmakizunari: gaur egun trenbidearen izenaz ezagutzen dugun asmakizunari, alegia.

Trenbidearen historia mentalitateen historiaren ikuspuntutik idatziko bagenu –eta ez ikuspuntu teknologikotik- barrualdean bizi ziren gure arbasoentzat burdin bidea zabaltzeak suposatu zuenaz jabetuko ginateke. Herkulesi ala Prometeori zegokion buru azkar batek sortua zirudien bide erraldoiak, gizakiari natura zuzentzeko aukera emango ziola zirudien. Komunikazioen bide naturaletatik erabat kanpo eta borratuta zeuden lekuak, bat batean bidaiariak nahiz merkantziak garraia zitzaketen mendate, bidegurutze edo pasabide bihurtu ziren. Horrek, mendeetan zehar bere baitan itxita bizi, eta kasu askotan moteldu, izan ziren landa-gizarte txikien ametsik ausartenak ernatu zituen.



Barrualdean zeuden leku haietara trenbidea iristeak sortzen zuen poza hain zen handia, trenbidearen inguruan zeuden herrixka eta auzoetatik, beren zereginak amaitu ondoren, arratsaldero bost edo sei kilometro egiten zituzten makina bat bizilagun irteten zela, trenbidea eraikitzen ari ziren langileen urratsen atzetik.



Bere ibilbidearen punturen batetan, norberaren herria ukitzen zuen trenbidearen kontzesioa, gaur egun hiri bat hiri olimpikoa hautatzeak sortzen duen zalaparta eta gehiegizko gastua egiteko adinako motiboa zen, (termino erlatiboetan eta ez absolutuetan). Kontuan izan behar da gainera, hiri olimpikoa izendatzeak, hiria “positiboki diskriminatzen” duela olinpiaden artean eta olinpiadan zehar (kirol ekipamenduak eraikitzen diren bitartean). Baina gure arbasoek (eta gure garaikideek, heredatutako erreflexuarekin, abiadura handiko trenari dagokionez), trenbide geltokia izateak ala ez izateak, herriak, hiriak nahiz hiribilduak, kostata, mendeetan zehar lehiatu eta metatzen



joan ziren estatusa erabat baldintzutzen zuela sentitzen zuten (onerako ala txarrerako).

Historia horren barnean atal berezia hartuko dute, edo hartuko lukete, “trenbide-korapilo” gisa eratzeari bere demografia, arrakasta eta batzuetan baita bere izatea edo biziraupena ere zor dioten herriak. Trenbidearen seinaleetan nahiz tren barneetan aipatzen diren herri horiek, oihartzun mitikoa izango dute “trenbidearen unibertsoan”. Horietako kasu batzuetan kuriozosa da herri batek trenbide-mailan duen garrantzia, eta gainerako alderdi administratibo, ekonomiko edo kulturaletan agertzen duen mendetako ahanztura eta txikitasuna. Kontraste horretan zentratuko naiz ondoren, mentalitateen historian azaltzen saiatzen ari naizen tarte moduko honetan.






Bere baitan itxita dauden landa gizarteetan ez da munduko maparen inguruko ezagutza maila oso altua izaten. Edozein garaitan, premiazko egoeran dauden pertsonen antzera, beren sorlekua utzi eta etorkizun hobe baten bila abiatzen den nekazari, “payés” edo baserritarrarentzat, Amerika eta La Rochelle edo Bilboren arteko desberdintasuna, ez da Bilbo edo La Rochellera iritsi arte argituko. Amerika eta Habana, Valparaiso, Buenos Aires edo Caracasen arteko desberdintasuna, hots kontinentearen eta bere zati txiki baten arteko aldea, ez da helmugara iritsi arte argituko. Gibraltarko Itsasarte pasako dion “patera”-ren zain dagoen Sahara hegoaldekoarentzat ez dago oraindik alde handia European dirua egin eta Alicanteko kostaldeko herri bateko merkatu txikian izango duen purtzilkeria postuaren artean. Beste era batera esanda, termino aristotelikoetan potentzia eta ekintzaren artean dagoen diferentzia dago. Honekin zera esan nahi dut, ulertu dezakedala gure antzinako etorkin horren harridura, demagun Altsasura iritsi eta konturatzen denean Altsasu abiapuntua besterik ez dela: Hendaia, Iruña edo Madrilera bideko abiapuntua. Pasaiara, Portugaletera edo Baionara oso nekatuta iritsi arren, bidean metatutako “harridura” handia izan arren, herri horiek helmuga ez, baizik eta abiapuntua besterik ez direla jabetzen da. Bat batean Meka handi, promiskuo eta nahasia bihurtzen den horretara, ontzira igotzean hasiko den benetako abenturaren aperitibo xumea. Gauza bera gertatuko zaie, berarekin batera itsasontziaren zain kaian dauden pertsona guztiei: denek buruan izen bakarra badute ere –Amerika–, izen horrek, beraietako bakoitzarentzat ametsik kuttunena eta ezkutukoena gordetzen du.



Eta “harriduragailua” Aro Garaikideari aplikatu ordez, giza historia guztiari aplikatuko bagenio, ba al daki irakurleak zein asmakizunak irabaziko lukeen alde handiz? Hizkuntzak. Hain da asmakizun harrigarria, giza kosmogonia guztiek jatorri Jainkotiarra egozten diotela.

Trenbidez eta mentalitatez ari gara, hitzekin gertatzen dena ulertzen lagunduko diguten analogia emankorra eskaintzen digutelako: hitz guztiak dira komunikazio tresnak; baina batzuk –trenbidea bezala- komunikazio bideak dira; beste batzuk komunikazio ibilgailuak dira –trenak bezala- ; beste batzuk geltokiak dira. Eta beraien artean badira nagusiak eta bigarren mailakoak, derrigor gelditu beharreko geltokiak, geltoki mugatuak, hautazko geltokiak, eta baita ahaztuta geratu diren geralekuak ere. Baina garai bakoitzak baditu, frantsesek deitzen dioten “l’esprit de son temp” diotenagatik, “komunikazio korapilo” bihurtzen diren hitzak. Eta korapilo hauek, hitz hauek, gizarteak jasaten dituen tentsio eta kontraesanak (desoreka demografikoak, gizarte gatazkak, injustizia ekonomikoak...). konpontzen lagunduko duten Eldorado mitiko bihurtzen dituzte.





Baina garai bakoitzeko komunikazio korapilo hauek hasteko identifikatu egin behar dira, eta ondoren zeharkatu. Eta zeharkatu behar dira, urrutitik bere izena ahoskatzen genuenean inuzenteki amesten genuen helmuga ez direla konturatzeko. Aitzitik, horra iritsi ondoren hasten den bidai handiaren atzean dagoen benetako helmugarako abiapuntua dira.

Aurkezten ari garen lan honek soberan betetzen ditu, zalantzarik gabe, XXI. mendean izango diren komunikazio korapiloetako bi identifikatu eta zeharkatzeko funtzioa: **lankidetza eta garapena**. Honela, gizarteak oro har eta Euskal Gazteria Lankidea egitarauak zehazki, honaino iritsi arte egin duen bidea ulertzeko aukera ematen du. Baina ez hori bakarrik, eta hau du alderdirik interesgarriena. Lan honek lortutakoa disolbatu egiten du imajinazioari zabaltzen zaion bidaiak suposatzen duen amets handiago batean, helmuga zela uste genuen lekura iritsi, eta leku hori horizontea zabaltzen den bidegurutzeari besterik ez dela ohartzen garenean.

Ibilbide hori ezagutu eta honaino ekarri gintuena baino horizonte zabalagoa, irekiagoa, argiagoa proposatzeaz gain, lan honen meritua dela uste dut -bere egile, sustatzaile eta bidaiari protagonisten meritua-, imajinatzen ari garen “harriduragailuari” “(psikosozio) mugimetroa” eransteko ematen digun aukera. Hau da, horizonte horrekiko martxan gauden ala geldirik gauden (pertsonalki nahiz sozialki) modu objektiboan adieraziko digun tresna bat eskaintzea; martxan goazenean, trena gidatzen ari garen, ala eramaten gaituzten, gu lasai eserita leihotik kanpora begira goazen bitartean; konexio berri baten zain ote gauden, trena pasatzen ikusten ari ote garen, bidaiariak trenera igotzen ala



trenetik jaisten laguntzen ari ote garen, edo herdoiltzen ari ote garen bazterrean geratuta; eta “last but not least”, bi komunikazio korapilo hauen artean martxan gaudenean, bietako zein norabidetan mugitzen ari garen.

Baina korapilo bat, hiztegiak ematen digun definizioaren arabera, zera da: “estutu eta ixten den lazoa, bakarrik ia inoiz askatu ezin izango den lazoa”, eta baita ere “hitz egitea edo gauzak adieraztea zaildu egiten duen atsekabea edo nahigabea”. Hori dela eta, xelebre eta paradoxikoki, analogiek ere bere muga dutelako, lan honi opa diogun azken helmuga hauxe da: horizonte bera bilatzen duten adin, egoera edota jatorri desberdineko jendearen elkargune bihurtuz, kontrako eztarritik joan zaizkigun korapiloak askatzen, kanporatzen laguntzea. Eta kontakizun honetako protagonista gazteak bezala, Bestearengana eta besteengana eramaten gaituen itsasontziaren kubiertan edo trenaren estriboan gaudela, eztarria garbi, kresala edo lur bustia usaintzeko prest, eta malko askatzaileak mendiko ziertzo sendoak edo itsasoko haize gardenak garbituta, bihotzaren ahotsari bidea zabaltzen lagun dakigun.

*Jose Mari Sanchez Carrión
Linguistikan Doktorea*

